

25/26 IKASTURTERAKO AURREINSKRIPZIOA EGITEKO INFORMAZIOA

Eskaerak aurkezteko epea **2025eko martxoaren 24tik apirilaren 4ra** izango da, biak barne.

Familiak telematikoki tramitatu beharko dute eskaera, [Educa Portal](#) bidez, Educa erabiltzaile eta pasahitzarekin, ziurtagiri elektronikoarekin edo cl@ve sisteman sartzeko kredentzialen bidez.

Familiak hala eskatuz gero, eskolak laguntza ematen ahalko du eskaera tramitatzeke. Horretarako, **martxoaren 11tik aurrera** ordua eskatu beharko da telefonoz: 948 331 925 edo 948 073 010 edo posta elektronikoz kontaktatuz: eiuartehe@huarte.es

Haur bakoitzak eskabide bakarra aurkeztu beharko du, eta bertan 6 aukera sartu ahal izango ditu lehentasunaren arabera, ikastetxearen izena, hizkuntza-modalitatea eta lanaldi-mota adieraziz. Ikastetxeak herri berean edo gehiagotan egon daitezke. Ikastetxeren batean lanaldi aukera bat baino gehiago edo hizkuntza-modalitate bat baino gehiago baldin badago, horietako bakoitza aukera bat izango da.

Grabatutako datuak apirilaren 4ra arte aldatu edo zuzendu ahal izango dira, eta data hori igaro ondoren ez da onartuko baremoan eragina izan dezakeen dokumentazio berririk.

Baliozko eskaera eraginkortzat joko da honako kasu hauetako batean dagoena:

- ✓ Bi gurasoek edo legezko tutoreek sinatuta egindakoa.
- ✓ Horietako batek bakarrik egindakoa, betiere laukitxoa markatu badu: "Zin egiten dut bi gurasoak edo tutoreak eskaerarekin ados gaudela".
- ✓ Hauetako batek egindakoa, laukitxoa markatu duen bakoitzean: "Adierazten dut guraso/tutoreak banantze, dibortzio edo desadostasun egoeran gaudela, eta ebazpen judiziala edo indarrean dagoen dokumentazioa aurkezten dut, zeinetatik ondorioztatzen den nire alabaren ikastetxea bakarrik erabakitzea dagokidala".

Modu telematikoa egindako eskaera bat baliozkotzat jotzeko, izapidea amaitu behar da nahitaezko dokumentazio guztia erantsiz eta **"Aurkeztu"** botoia sakatuz.

INFORMAZIO OROKORRA

ERRIGORREZKO DOKUMENTAZIOA	BAREMOA
-Aita, ama edo tutoreen NAN edo pasaportea fotokopia. -Familia liburua edo liburuen fotokopia. -Haurrak ez badira jaio, medikuaren ziurtagiria non erditzearen dataren estimazioa agertzen den. - Haurra adopzio edo harrera prozesuan badago, jaioteguna egiaztatzen duen agiria aurkeztuko da.	
<i>LEHENTASUNEZKO IRIZPIDEAK</i>	<i>PUNTUAK</i>
Eskolan anai-arrebak izatea	3 puntu gehienez
Urte berean jaiotako anai-arreben kasuan, bat onartzeak gainerakoa onartzea ekarriko du.	
Uhartan erroldatua edo lana egiteagatik	10 puntu gehienez
Haurra erroldatua + ordezkari legal bat 2025/01/01 baino lehen	10 puntu
Bi gurasoetako batek Uhartan lan egiten duela egiaztatzen duen agiria (enpresaren ziurtagiria)	2 puntu

Familia unitatearen per capita errenta 2023ko errenta aitortpenaren fotokopia (bikote familietan bien errenta aitortpena ekarrik beharko da) Gurasoen aitortpen bereiziak izanez gero, biek sinatu beharko dute adostasun gisa. Errenta-aitortpena egitera BEHARTUTA EZ BADAGO , ogasunak emandako "datu fiskalak" aurkeztuko dira, beste errenta edo diru-sarrera batzuk jaso izana egiaztatzen duten agiriekin batera.	3 puntu gehienez ✓ LGSaren erdia edo txikiagoa 3 puntu. ✓ LGSren erdia baino handiagoa eta ¾ baino txikiagoa: 2 puntu. ✓ LGSren ¾ baino handiagoa edo txikiagoa: puntu 1. ✓ LGS baino handiagoa: 0 puntu.
Desgaitasunaren konkurrentzia Edozein familiako kideen minusbalotasuna % 33 baino gehiagoaren ziurtagiria.	2,5 puntu gehienez ✓ Haur eskolan sartuko den haurraren desgaitasuna: 2 puntu. ✓ Aita, ama edo anai- arreben desgaitasuna: 0,5 puntu.
Genero indarkeria edo terrorismoaren baldintza Genero indarkeria edo/eta terrorismoaren baldintzak betetzen duen ziurtagiri ofiziala	Gehienez puntu bat Egoera bat edo biak ematen direnean: puntu bat.
Uharteko h.e. lan egiteagatik	0,8 puntu
Familia ugariak Familia ugariak egiaztatzen duen karneta.	0,8 puntu
Haurraren familia-harrerarengatik Dokumentu ofiziala egiaztatzen duena	0,8 puntu
Gurasobakar familiak Guraso bakarraren karneta	0,8 puntu
Erditze ugaria Dokumentu ofizial egiaztatzen duena	0,8 puntu

IRIZPIDE OSAGARRIAK BERDINKETAK DAUDENEAN	PUNTUAK
FAMILIA OROKORRAK - Lan-bizitzaren ziurtagiria, jarduera ekonomikoen gainerako zerga edo lan-kontratua. (eskaerak aurkezteko ohiko epearen azken eguna baino 30 egun natural lehenago luzatua). -ikasketa ofizialaren matrikularen ziurtagiria. -Eszedentziaren komunikazioa lanera bueltatzearen datarekin. Ezin da urriak 17 baino berandukoagoa izan. - Ezintasun iraunkor absolutuagatik edo baliaezintasun handiagatik pentsioa aitortuta duela egiaztatzen duen dokumentazioa.	Bi gurasoek, lanean ari direla, ikasketa arautuak egiten ari direla edo ezintasun iraunkorra edo baliaezintasun handia dutela: puntu bat.

GURASOBAKAR FAMILIETAN: - Lan-bizitzaren ziurtagiria, jarduera ekonomikoen gainerako zerga edo lan-kontratua. (eskaerak aurkezteko ohiko epearen azken eguna baino 30 egun natural lehenago luzatua). -ikasketa ofizialaren matrikularen ziurtagiria. -Eszedentziaren komunikazioa lanera bueltatzearen datarekin. Ezin da urriak 17 baino berandukoagoa izan. - Ezintasun iraunkor absolutuagatik edo baliaezintasun handiagatik pentsioa aitortuta duela egiaztatzen duen dokumentazioa. *Berdinketa jarraitzen badu, Hezkuntza Departamenduak egindako zozketaren ondorioz ezarriko da, martxoak 14 ean izango da.	Bi gurasoek, lanean ari direla, ikasketa aratuak egiten ari direla edo ezintasun iraunkorra edo baliaezintasun handia dutela: puntu bat.
---	---

MATRIKULAZIO EGUTEGI PROZEDURA

ATE IREKIAK MARTXOAK 19 AN	(16:30 ETATIK 18:00 ETARA).
AURRETIKO IZENA EMATEA Familiak telematikoki tramitatu beharko dute eskaera, Educa Portal bidez, Educa erabiltzaile eta pasahitzarekin, ziurtagiri elektronikoarekin edo cl@ve sisteman sartzeko kredentzialen bidez. Familiak hala eskatuz gero, eskolak laguntza ematen ahalko du eskaera tramitzeko. Horretarako, martxoaren 11tik aurrera ordua eskatu beharko da telefonoz: 948 331 925 edo 948 073 010 edo posta elektronikoz kontaktatuz: eiuartehe@huarte.es Aurkeztu beharreko dokumentazioa Udalaren web orrian https://huarte.es/ eta eskolaren web orrian (https://haur-eskola-haur-eskola-uharteak-de-huarte---uharteko-haur-eskolak.cms.webnode.es/tasas-de-matriculación/) deskarga dezakezue.	MARTXOAREN 24TIK APIRILAREN 4RA (biak barne)
ESKAEREN BEHIN-BEHINEKO EGOERA (IKUSGAI)	MAIATZAK 8AN
ERREKLAMAZIOAK ETA/EDO BEHIN-BEHINEKO ZUZENKETA EGIAZTATUA	MAIATZAREN 9tik 13ra
BEHIN-BEHINEKO ZERRENDAK ARGITARATZEA EDUCA atarian argitaratuko da, udalaren eta eskolaren webgunean. Eskoletako ateetan ere eskuragarri egongo da	MAIATZAK 20 AN
ERREKLAMAZIOAK Uharteko Udalean eskabide bidez eginen dira: ayuntamiento@huarte.es.	MAIATZAREN 21ETIK MAIATZAREN 23RA (biak barne)
1. BEHIN BETIKO ZERRENDA ARGITARATZEA EDUCA atarian argitaratuko da, udalaren eta eskolaren webgunean. Eskoletako ateetan ere eskuragarri egongo da	MAIATZAK 28 AN.

LEHENENGO MATRIKULA EPEA Aurrez aurre egingo da Ugarrandia Haur Eskolan *Matrikula egin ondoren, “aukera hobetzeko” aukera izango da, lehen aukera gisa hautatutako ikastetxea ez den beste batean plaza lortu bada.	MAIATZAREN 29TIK EKAINAREN 4RA (biak barne)
2. BEHIN BETIKO ZERRENDATA ARGITARATZEA Epe hori bukatutakoan, itxarote-zerrendan puntuazioaren arabera agertzen diren eskatzaileei plaza hutsak eskainiko zaizkie. EDUCA atarian argitaratuko da, udalaren eta eskolaren webgunean. Eskoletako ateetan ere eskuragarri egongo da	EKAINAK 6 AN.
BIGARREN MATRIKULA EPEA Aurrez aurre egingo da Ugarrandia Eskolan	EKAINAREN 9TIK 10ERA (biak barne)
3. BEHIN BETIKO ZERRENDATA ARGITARATZEA Epe hori bukatutakoan, itxarote-zerrendan puntuazioaren arabera agertzen diren eskatzaileei plaza hutsak eskainiko zaizkie. EDUCA atarian argitaratuko da, udalaren eta eskolaren webgunean. Eskoletako ateetan ere eskuragarri egongo da	EKAINAK 12 AN
HIRUGARREN MATRIKULA EPEA Aurrez aurre egingo da Ugarrandia Eskolan	EKAINAREN 13TIK 16RA (biak barne)
ITXARON ZERRENDAK Itxarote-zerrendarik egonez gero, eskolak kudeatuko du, puntuazio-hurrenkeraren arabera.	EKAINAK 17 TIK 2026KO OTSALIAREN 13 RA (biak barne)